



SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA

# VIII. ohiko BATZAR OROKORRA

Andoainen, 2012ko maiatzaren 31n

Bazkide hori:

Gutun honen bidez, Soziolinguistika Klusterrak, 2012ko ekainaren 14an Donostiako Aquariumean egingo duen Batzar Orokorraren berri eman nahi dizugu.

Jarraian duzue, Batzarrerako deia:

## SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAREN BATZAR OROKORRA

**Eguna:** 2012ko ekainaren 14a, osteguna

**Ordutegia:** 11:00etatik 13:00etara (lehen deialdia 15 minutu lehenago izango da)

**Lekua:** Donostiako Aquariumean

**Gaiak:**

- 2011ko ekitaldiko diru sarrera eta gastuen balantzea onartu
- 2012 ekitaldirako helburuak eta aurrekontua onartu
- 2012-2015 Hausnarketa Estrategikoa.
- Elkartearen estatutuak moldatu
- Zuzendaritza Batzordearen osaketa onartu
- 2011ko Ahozko Kale Erabileraren Neurketa. Emaizak.

Estatutuek Batzar Orokorrerako arautzen dituzten ohiko atal formalak aztertzeaz gain (aurreko urteko balorazioa, urteko plana eta aurrekontua, zuzendaritzaren osaketa...) atal berezi bat eskaini nahi dizuegu Klusterretik: 2011ko Ahozko Kale Erabileraren Neurketaren emaitzak aurkeztuko ditugu.

Gure erakundearen nondik-norakoak zuenean hobeto ezagutzeko, Batzarrera zuen erakundeko kide bat baino gehiago etortzera animatzen zaituztegu. Eskertuko genuke etortzekotan aurrez [kluster@soziolinguistika.org](mailto:kluster@soziolinguistika.org) helbidera idatziz abisatzea.

Bertan elkar ikusiko dugulakoan, jaso ezazu gure agurrik beroena,

Jaime Altuna

*Soziolinguistika Klusterreko lehendakaria*

MARTIN UGALDE KULTUR PARKEA ■ 20140 ANDOAIN  
Tel.: 943 592556 ■ Fax: 943 304151  
[www.soziolinguistika.org](http://www.soziolinguistika.org) ■ [kluster@soziolinguistika.org](mailto:kluster@soziolinguistika.org)